

# **PRACTICUMENKO GIDA**

## **GIZARTE ANTROPOLOGIAKO GRADUA**

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA  
UPV / EHU



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

2017/18 IKASTURTEA



## AURKIBIDEA

1. Planteamendu orokorra	2
1.1. Practicumaren helburu orokorrak	2
1.2. Gizarte Antropologiako Practicumeko gaitasunak	2
1.3. Profila, eginkizunak eta balizko jarduera arloak	
1.4. Lanbide-deontologia	3
1.5. Practicumaren antolakuntza-egitura Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	5
	6
2. Practicuma: kredituak eta egiteko epea. Egutegiak eta ordutegiak	7
3. Practicuma esleitzeko prozesua	8
3.1. Aurkezpen orokorra	8
3.2. Praktiken hautapena	9
3.3. Autopracticum	9
3.4. Zentroa esleitzea	
3.5. Erreklamazioak	
4. Arauak	10
5. Practicuma abian jartzea	12
5.1. Zentroarekin harremanetan jartzea eta ikasleei deialdia egitea	12
5.2. Practicuma hastea praktiketako zentroan	12
6. Practicumeko tutoretza gauzatzeko prozedura	13
6.1. Tutoretza gauzatzeko baldintzak	13
6.2. Praktiketako zentroko instruktorearen eskubideak eta betebeharrak	13
6.3. Fakultateko tutorearen eskubideak eta betebeharrak	14
6.4. Ikasleen eskubideak eta betebeharrak	14
7. Gizarte Antropologiako Practicumeko garapen metodologikoa	16
7.1. Aurkezpena	16
7.2. I. Blokea	17
7.3. II. Blokea	18
8. Azken Memoria	19
9. Practicumaren ebaluazioa	19
9.1. Fakultateko tutorearen ebaluazioa	20
9.2. Praktiketako zentroko instruktorearen ebaluazioa	20
10. Kontaktu interesgarriak	21
11. Practicumari buruzko legedia	22

## **1.- PLANTEAMENDU OROKORRA**

Practicuma funtsezko elementua da Gizarte Antropologia Graduko ikasketa-planaren barruan. Izan ere, Practicumak aukera ematen du unibertsitateko ikasketak lanbide-jardunera gerturatzeko, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa eskuratzeko, hezkuntza- edo gizarte-errealitatera gerturatzeko eta errealitate horrekin integratzeko, eta gerora ikaslearen lanbidea izango denari behatu, hasiera eman eta egiaztatzeko.

### **1.1.- PRACTICUMAREN HELBURU OROKORRAK**

- Ikasleen oso-osoko prestakuntza bultzatzea, haien ikaskuntza teoriko eta praktikoa osatuta.
- Lanbide-errealitatera egokitzen den lan-metodologia ezagutzen laguntzea ikasleei, eskuratutako ezaguerak kontrastatuta eta aplikatuta.
- Ikasleek gaitasun tekniko, metodologiko, pertsonal eta partaidetzakoak gara ditzaten bultzatzea.
- Ikasleek esperientzia praktikoa eskuratzeko, lan-merkatuan sartzen eta beren enplegarritasuna hobetzen laguntzeko.
- Berrikuntzaren, sormenaren eta ekintzailtzaren balioak bultzatzea.

### **1.2.- GIZARTE ANTROPOLOGIAKO PRACTICUMEKO GAITASUNAK**

- **PRACTICUMEKO GAITASUNAK**

1. Praktika profesionalaren definizio eta garapenari ezagupen teorikoak ezarri.
2. Ikertutako taldeekin lankidetzak eta lan harremanak eraiki eta azterketa egiteko orduan behar den distantzia jarri.
3. Programa eta ikerketa proiektu eta diseinuetan lagundu, erakundearen eskaerari egokituz eta bertako ezaugarri eta beharrak kontutan izanik.
4. Erakundearen bertan gaiak, arazoak eta lan lerroak detektatu eta aztertu.
5. Gizarte esku-hartzeko ereduak indarrean jartzen direneko ondorioak neurtzen jakin.
6. Lanari eta jarduerari gauzatu den erakundeetako kulturari buruzko gogoeten berri ematea, argudioak emanez, idatziz zein ahoz.



### 1.3.- PROFILA, EGINKIZUNAK ETA BALIZKO JARDUERA ARLOAK

- **PROFILA**

Gizarte Antropologiako graduduna gizarte-errealitatea aztertzen aditua izango da ikuspegi akademiko-zientifikotik nahiz profesionaletik. Gizartearen gertakariak eta prozesuak interpretatzeko gaitasuna izango du, ikuspegi konparatibo eta holistiko batean oinarrituta. Era berean, gizarte-aniztasunaren sorreran eragiten duten faktoreekiko sentibera izango da. Eremu teoriko eta praktikoak menderatuko ditu eta tokian tokiko ikasketei buruzko informazioa beste kultura arlo batzuetakoarekin konbinatzeko gai izango da.

Bere ezaguerek hainbat arlotan profesionalki aritzeko aukera emango diote, esate baterako, kultruarteko harremanetan, tokian tokiko garapenean eta nazioarteko lankidetzan, kultura ondasunetan eta kultura-kudeaketan, ikerkuntzan eta irakaskuntzan, ikerkuntza aplikatuan eta zerbitzu personal, sanitario eta sozialen. Hori guztia aurrera eramateko, gradudunak etnografiaren gaineko idazketa eta ulermenean prestakuntza izango du eta trebeziak bereganatuko ditu jakintza komunikatzeko, gizartean esku hartzeko eta antropologiako gaietan etengabe hobetzeko.

- **EGINKIZUNAK**

Honako hauek dira Gizarte Antropologiaren arloko profesionalen eginkizunetako batzuk:

1. Momentura arte kontuan hartu ez diren laneko aukerak eta/edo arazoak **identifikatzea** eta aribidean dauden gaiak **aztertzea**.
2. Gizarte- edo kultura-aniztasunak erakundeko eguneroko dinamikari begira duen garrantzia **aintzat hartzea**.
3. Prestakuntza-proiektuak, ikerketa-proiektuak (ikuspuntu kualitatiboa) eta/edo esku hartzeko proiektuak gauzatzen **laguntzea**.
4. **Bitartekaritza- eta dinamizazio-zereginak egitea** sektore edo kolektibo desberdinen artean.

- **BALIZKO JARDUERA ARLOAK**

Gida honetan aipatu diren lanbideratze arlo profesionalak balizkoak dira. Horrek ez du esan nahi arlo horiek bat etorri behar dutenik Fakultateko Practicumaren eskaintzarekin.

Aipatutako jarduera arloak honako multzo hauetan sailkatu dir

#### **1.- Etnologia- eta kultura-ondarea**

- Museoetan edo bestelako kultura-guneetan gauzatutako ikerketa-proiektuetan, prestakuntza-proiektuetan eta esku hartzeko proiektuetan laguntza ematea.
- Museo-jardueren (erakusketa-proiektu, zinema-ziklo, argitalpen, kultura-aste eta abarren) antolakuntzan edo ekitaldi berriak diseinatzeko eta abian jartzeko garaian parte hartzea.
- Funtsekin eta erakusketekin zerikusia duen informazioa biltzea.
- Hezkuntza-, lankidetzatza- eta animazio-lantegiak, belaunaldien arteko topaketak, bisita gidatuak eta jendearentzako arreta prestatzen eta gauzatzen laguntzea.
- Material didaktikoa prestatzen laguntzea.
- Tokiko biztanleekin egindako bitartekaritza-lanean parte hartzea.
- Hartzaile- eta marketin-azterketak (bereziki kualitatiboak) egiten laguntzea, produktu turistikoak garatzea, eta hartzaile berriak erakartzea antropologiaren ikuspuntutik (testuingurua ezagutzeko eta hartzaileengana gerturatzeko).

## **2.- Gizarte-zerbitzuetarako eta osasun-arretarako euskarria**

- Gizarte-ongizateko beharren diagnostikoa egiten eta politikak diseinatzeko laguntzea.
- Gizarte- eta osasun-jardueren arloetako programen diseinuan eta garapenean parte hartzea.
- Sailak edo atalak gauzatutako proiektuei ikuspegi kualitatiboa eta kultura artekoa ematea.
- Sailak edo atalak gauzatutako proiektuei genero-ikuspegia ematea.
- Programak eta jarduerak diseinatzeko eta abian jartzeko garaian parte hartzea.
- Programen eta jardueren ebaluazioa egiten eta aholkularitza-zereginetan laguntza ematea.

## **3.- Kultura-kudeaketa eta -sorkuntza eta hizkuntza-plangintza**

- Kultura-programak eta -jarduerak diseinatzeko eta abian jartzeko garaian parte hartzea.
- Programen eta jardueren ebaluazioa egiten eta aholkularitza-zereginetan laguntza ematea.
- Kultura-ondarea eta museo-politikak sortzeko, mantentzeko eta garatzeko ekarpena egitea.
- Euskara sustatzeko eta zabaltzeko zerbitzu eta jarduerak linguistikoei babesa ematea eta programetan parte hartzea.
- Euskarari eta kultura-aniztasunari buruzko programetan parte hartzea.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari buruzko proiektuetan laguntza ematea.

## **4.- Ikerketa eta aholkularitza**

- Administrazio publikoen, fundazioen, ikerketa-zentroen eta enpresa pribatuen eremuan gauzatutako ikerketa, diagnostiko eta azterlanen diseinuan eta gauzapenean parte hartzea.
- Ikerketa-zeregin osagarriak egitea.
- Landa-lana egitea.
- Datuak aztertzea eta emaitzen txostena idaztea.



## 5.- Kultura arteko bitartekaritza, kultura-aniztasuna eta migrazioa

- Etnia edo kultura anitzeko testuinguruetan gizarte-bitartekaritza egiten laguntzea.
- Kultura-aniztasunaren azterketa antropologikoa aplikatzea eta beste talde soziokultural batzuen berezitasunetara gerturatzea.
- Komunikazio-prozesuan eta elkar ulertzeko prozesuan, ikaskuntza-prozesuan, eta elkarbizitza garatzen eta gatazkak kontrolatzen laguntzea.
- Biztanleria-diagnostikoak egitea.
- Prestakuntza-prozesuetan parte hartzea eta teknikari eta profesionalei aholkularitza ematea kulturaren, migrazio-prozesuen eta aniztasunaren kudeaketaren arloetan, ikuspegia zabaltzeko eta estereotipoak eta aurreiritziak murrizteko helburuarekin.

## 6.- Industriaren eta enpresa pribatuaren eremua

- Enpresa-ingurunearekin eta merkatuarekin harremanetan jartzea eta pertsonek horiei buruz duten pertzepzioari buruzko gogoeta egitea.
- Langileek enpresaren kontzeptuari buruz duten pertzepzioaren azterketari ekarpena egitea.
- Bezeroek enpresaren eta haren produktuen kontzeptuari eta enpresa lehiakidearen kontzeptuari buruz duten pertzepzioaren azterketari ekarpena egitea.
- Erabiltzaileen nahi esplizituak edo inplizituak identifikatzen ikastea eta diseinu-parametroetan bihurtzea.
- Pertsonek produktuak jardunean jartzeko garaian egiten dutenari buruzko azterketa antropologikoari ekarpena egitea.
- Produktu baten *erabilgarritasuna* eta interakzio-erraztasuna ebaluatzen laguntzea.
- Erabiltzaileak hautematen duen kalitatea definitzen duten elementuez jabetzen ikastea.
- Pertsonetan oinarrituta dauden eta bizi-kalitatea hobetzea helburu duten berrikuntza-tresnak bilatzea.

## 7.- Tokiko eta nazioarteko garapena

- Garapenerako lankidetzako proiektuak diseinatzen, planifikatzen edo abian jartzen laguntzea.
- Gizarterako eta herritarrentzako hobekuntzak lortzea helburu duten herri-ekimenetan bitartekari gisa parte hartzea.
- Gauzatutako proiektuen ebaluazio-prozesuetan parte hartzea.
- Hainbat herri, komunitate edo talderen egoera eta premiak aditzera ematea helburu duten sentsibilizazio-proiektuak (lantegiak, jardunaldiak, erakusketak, argitalpenak, etab.) diseinatzen eta/edo egiten laguntzea.

### 1.4.- LANBIDE DEONTOLOGIA

Etorkizuneko gizarte antropologoek kasuan kasuko deontologia-kodea bete beharko duten beren jardunean, bertan ezarriko baitira lanbide horietako jardueraren eta erregulazioaren printzipioak, profesionalon jokaera bideratze aldera erantzukizun maila bakoitzean.

### **1.5.- HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEKO PRACTICUMAREN ANTOLAKUNTZA EGITURA**

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak honako egitura hau du, Practicumari begira:

- Practicumeko dekanordea
- Practicumeko Batzordea
- Practicumeko koordinatzaileak (titulu bakoitzeko bana)
- Ikastegiko teknikaria

Antolakuntza-egitura horrek Practicumaren kudeaketa osoa bermatzen du eta era koordinatuan gauzatzen da, kasuan kasuko eginkizun eta erantzukizun espezifikoak nor bere eginda.



## 2.- PRACTICUMA: KREDITUAK ETA EGITEKO EPEA. EGUTEGIAK ETA ORDUTEGIAK

### *Gizarte Antropologia Graduko Practicuma (18 ECTS kreditu = 450 ordu)*

4. mailan: Practicum 18 kreditu/450 ordu (1. lauhilekoa)

Gizarte Antropologia Graduko Practicuma bi bloketan gauzatuko da:

- I. Blokea: kreditu 1/aurrez aurreko 20 ordu: Fakultatean: 2017ko irailak 13, irailak 14, urriak 9, azaroak 6, abenduak 11 eta 2018ko urtarrilak 22..
- II. Blokea: 17 kreditu/aurrez aurreko 340 ordu: Praktiketako zentroetan: 2017ko irailaren 20tik abenduaren 22ra.

Praktiketako **ordutegiak** praktiken ezaugarrien eta erakunde-kolaboratzailearen aukeren arabera ezarriko dira. Nolanahi ere, praktiketako ordutegiak bateragarriak izango dira ikasleek Fakultatean dituzten jarduera akademikoekin, prestakuntza-jardurekin eta ordezkaritza- eta partaidetza-jardurekin.



### 3.- PRACTICUMA ESLEITZEKO PROZEDURA

#### 3.1.- AURKEZPEN OROKORRA

Urtero, martxoan, Practicum bakoitzaren informazio aurkezpen orokorra egiten da Fakultateko Areto Nagusian hurrengo ikasturtean Practicumak egiteko betebeharra duten ikasleentzat.

- Salbuespenak salbuespen, ikasleek derrigorrez joan behar dute aurkezpenera.

Aurkezpen saioaren prestaketan eta saioan bertan, honako hauek parte hartzen dute: Practicumeko dekanordeak, Practicumeko irakaslego-tutoreak, eta ikastegiko teknikariak.

-Practicumeko dekanordea honako gai hauei buruz mintzatzen da: Practicumaren antolakuntza, fakultatearen egitura, bete beharreko epeak, ikasleei emandako informazioaren edukia, ikasleen eskubideak eta betebeharrak eta, ikasketetako azkeneko mailako Practicuma egingo duten ikasleei begira, Practicuma Garapenerako Lankidetzaren Proiektuetan gauzatzeko programari buruzko informazioa.

-Practicumeko irakaslego-tutorea honako gai hauei buruz mintzatzen da: Practicum bakoitzaren helburuak, metodologia, balizko jarduera arloak eta ebaluazio-sistema...

-Ikastegiko teknikaria, azkenik, saioa antolatzeaz arduratzen da, eta Practicumaren kudeaketari buruzko informazioa osatuko du.

Gradu bakoitzeko azkeneko mailan, **Garapenerako Lankidetzaren arloan egin daiteke Practicuma**. Xede horrekin, unibertsitateko praktikak garapenerako lankidetzaren arloan egiteko laguntzen deialdia egiten duen erabakia argitaratzen du urtero UPV/EHUko Gizarte Erantzukizuneko eta Unibertsitate Hedakuntzako Errektoreordetzak.



### **3.2.- PRAKTIKEN HAUTAPENA**

Practicuma egin ahal izateko, ikasle bakoitzak GAUREko perfilan sartu behar du, “Nahitaezko Praktiken” atalean, Practicumeko aurkezpenean adierazitako epean **praktiketako zentroen hautapena egiteko**.

### **3.3.- AUTOPRACTICUM**

Fakultateko eskaintzan kontuan hartu ez diren zentroak proposa ditzakete ikasleek. Horretarako, GAUREn dagoen Autopracticuma atala erabili beharko dute beren kabuz bilatutako praktikei buruzko datuak sartuz.

Gainera, Autopracticuma eskatzeko orria Practicumeko bulegoan aurkeztu behar dute proposatutako zentroaren zigilua eta sinadurarekin.

Fakultateak baloratuko du ikasleek proposatu edo aukeratu dituzten zentroak egokiak ote diren. Beraz, ikasleek proposamen batzuk egin izanak ez du esan nahi aukera horiek automatikoki esleituko direnik.

### **3.3.- ZENTROA ESLEITZEA**

Kontuan hartuko den espedientearen batz besteko nota, esleipena egiteko orduan GAUREn agertzen dena izango da.

#### **Autopracticumarekin esleitzea**

Ikasle batek Fakultateko eskaintzan kontuan hartu ez den Autopracticuma aurkeztu badu, proposamena egokia ote den aztertuko du Practicumeko Batzordeak, Practicumeko araudia eta plan orokorra kontuan hartuta.

Practicumeko Batzordeak erabakitzen badu ikaslearen proposamena egokia dela, fakultateak zentroarekin harremanetan jarriko da, praktiketako plan bat hitzartuko dute eta dagokion lankidetzaz-hitzarmena izenpetuko dute.

Aldiz, Practicumeko Batzordeak erabakitzen badu ikaslearen proposamena desagokia dela, proposamena atzera botako du eta zentroa hautatzeko atalean adierazitako aukerak hartuko ditu kontuan.

Plaza guztiak esleitu ondoren, esleipena argitaratuko da, adierazitako epean, GAUREn bidez, adjudikazioen atalean.

### **3.5.- ERREKLAMAZIOAK**

Erreklamazioak eskaria ofizialaren bidez egingo dira eta Practicumeko Bulegoan aurkeztu beharko dira, eskura.

### **Erreklamazioak ebaztea**

Practicumeko Batzordeak aztertuko ditu erreklamazioak, eta ondoren, behin betiko zerrendak argitaratuko dira. Une horretatik aurrera ezin izango da aldaketarik egin.

## **4.- ARAUAK**

Practicumetan matrikulatutako ikasleek praktiketako irakasle-tutore bat izango dute Fakultatean, baita instruktore bat ere praktiketako zentroan. Tutoreek ikaslea bideratuko dute eta prozesu osoaren jarraipena egingo dute.

Ikasleak ez baditu betetzen Practicumeko betebeharrak, Practicuma ez-gainditutzat eman daiteke.

Practicuma bere osotasunean baloratzen denez, gainditutzat emateko, bertako zati guztiak gainditu beharko dira, zentroko egonaldia, fakultateko lanak eta jarraipen mintegiak,.

Practicuma enborreko irakasgai bat da, eta, beraz, errespetatu beharreko ordutegi bat dauka zehaztuta. Data aldaketa egin ahal izango da bakarrik kasu berezi eta justifikatuetan. Horretarako eskaera aztertuko da.

Data aldaketa ez da baimen bat izango matrikulatuta egon litekeen beste ikasturte edo irakasgai batzuetara hutsik egiteko.

Ikaslegoak zenbait egun edota orduetan praktiketako zentrori joateko ezintasuna alegatzen duenean justifikazio- agiria aurkeztu beharko du bai zentroan, bai fakultatean.

Ikasleek Fakultatean garatuko den fase bakoitzeko saioen % 80ra bildu beharko dute gutxienez, jarraipen-mintegiak barne. Era berean, praktiketako zentroan egin beharreko orduen % 100 bete beharko dute, eta, hutsegiteren bat eginez gero, behar bezala justifikatu beharko dute.

Pertsona batek, lan-arrazoiak direla tarteko, practicuma ohiko moduan egin ezin badu, gainerako irakasgaietan aplikatzen den protokolo orokorrari jarraitu beharko dio; hortaz, eskari bat egin beharko dio graduko koordinatzaileari, eta laneko ordutegia adierazi beharko du bertan. Kasu horietan, tituluko koordinatzaileak jakinaren gainean jarriko ditu Practicumeko Dekanordetza eta practicumeko tutorea.



Ikasle bat fase bakoitzeko jardueren % 80 baino gutxiagora bakarrik bil badaiteke, jarraitutasunik gabe, eta behar bezala justifika badezake, tutoreari jakinarazi beharko dio, eta enpresaren sinestamendua edo ziurtagiria eta aurreikusitako egutegia aurkeztu beharko ditu. Kasu horietan, tutoreak ordezeko jarduera bat proposatuko dio ikasleari.

Ikasle bat lanean ari bada eskuratu nahi duen tituluko praktika-zentro izan daitekeen zentro batean, zentro horretan egin ditzakete praktikak, aurretik autopacticumaren eskaria egiten badu. Horretarako, enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko du autopacticumarekin batera, eta bertan adierazi beharko du enpresa horretan lan egiten duela, baita zer ordutegi duen ere.

Kasu horretan, gainera, Prestakuntza Proiektuan argi eta garbi bereizi beharko dira lanbideko eta practicumeko helburuak, eginkizunak eta edukiak. Nolanahi ere, ikasleak praktiketako prozesu orokorrari jarraitu beharko dio (mintegiak, zereginak...).

Practicuma Sicue-Seneca mugikortasun-programaren bidez egiten ari diren ikasleei dagokienez, honako jarduera-prozedura honi jarraituko zaio:

1. Dekanotzak ikaslearen jatorrizko zentroarekin negoziatuko ditu egin beharreko kredituak eta kredituen aitortpen akademikoa.
2. Practicumeko Dekanordetzak egin beharreko orduen berri emango du, eta baita tutoreari esleitutako praktiketako zentroaren berri ere.
3. Tutoreak, egin beharreko ordu kopuruaren eta beste aldagai batzuen arabera, Prestakuntza Proiektua hitzartuko du ikaslearekin. Era berean, ikaslearekin erdietsitako akordioaren berri emango dio Practicumeko Dekanordetzari.

2010eko ekainaren 22an Fakultateko Batzarrak hartutako erabakiari jarraituz, **ikasturteko deialdi bakarra** egiten da Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko tituluetakoa **Practicumetarako**. Balorazioa orokorra denez, deialdi bat gainditzen ez bada, hurrengo deialdian prozesu osoa gauzatu behar da.

Beste irakasgai bat bezela denez, Practicuma automatikoki Eskola Aseguruak babestuko du.

Practicumerako ezarritako epea gainditu izanagatik ere, ikasleek praktikak egiten jarrai dezakete. Kasu horretan, ikaslea *borondatezko praktikak* egiten ari dela esango genuke, eta horretarako, Fakultatean ezarritako baldintzak bete beharko lirateke.

Practicumak prestakuntza-izaera duenez, erakundeek edo zerbitzuek ez dute lan arloko betebeharririk izango. Bestalde, zentroek ezin izango dute Practicumeko ikasleekin lanposturik bete, ikasleak praktikak egiten ari diren bitartean.

## 5.- PRACTICUMA ABIAN JARTZEA

Practicum guztien programak, uztailean, Fakultateko Practicumeko web orrian argitaratzen dira. Programa bakoitzean Practicumaren hasierako eguna, ordua eta tokia zehazten dituen kronograma bana agertzen da.

Practicumak **Prestakuntza Proiektu** bat izango du, Practicuma egiten duten ikasle guztientzat balioko duena baino kasu eta zentro bakoitzera egokituko dena. Horretarako, ikasleak, zentroko instruktoreak eta Fakultateko irakasle-tutoreak ados egon beharko dute. Harreman horiek Practicumak irauten duen bitartean mantenduko dira.

### 5.1.- ZENTROAREKIN HARREMANETAN JARTZEA ETA IKASLEEI DEIALDIA EGITEA

Adierazitako epearen baitan plazak esleitu eta zerrenda argitaratu ondoren, ikasleek jakingo dute zer zentrotan egingo dituzten praktikak, baino **ez dira zentroarekin harremanetan jarriko, Fakultateko irakasle-tutoreak harremana ezarri bitarte.**

Fakultateak zentroarekin lehen harremana izan ondoren, ikasleari bilera baterako deia egingo zaio zentrotik, eta une horretatik aurrera, Practicuma abiatuko da.

### 5.2.- PRACTICUMA HASTEA PRAKTIKETAKO ZENTROAN

Fakultatean lehenengo bilera egin ondoren, ikaslea dagokion zentroarekin harremanetan jar daiteke. Zentrorra joan aurretik, tutorearekin hitzordua egin beharko du.

Praktikak hasi baino lehen, ikasle bakoitzak “XI. Eranskina” eta “Isilpekotasun-konpromisoa orria” bete beharko ditu. Dokumentu hauek Practicumeko web orrian eskuratu daitezke. Aipatutako bi dokumentuak Practicumeko lehenengo egunean zentroko instruktoreari eskura eman behar zaizkio.



## 6.- PRACTICUMEKO TUTORETZA GAUZATZEKO PROZEDURA

### 6.1.- TUTORETZA GAUZATZEKO BALDINTZAK

Practicuma egin ahal izateko, ikasleek bi tutore izango dituzte: batetik, praktiketako zentroko tutorea, eta bestetik, Fakultateko ikasketa-tutorea.

Zentroetako tutoreek baldintza hauek betetzea komeni da: profesional esperientziadunak izatea, tutoretza modu eraginkorrean gauzatzeko beharrezkoak diren ezaguerak izatea, eta ikaslea egiten ari den ikasketen maila bereko prestakuntza izatea.

### 6.2.- PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

*Praktiketako zentroko instruktoreak honako eskubide hauek izango ditu:*

- Bere lankidetzat aintzat hartzeko eskubidea, dagokion ziurtagiria eginda.
- Fakultatetik kanpo egiten diren praktikak erregulatzen dituen araudiari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Unibertsitatean sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak betetzeko behar dituen informazioa eta babesa eskuratzeko.

Era berean, praktiketako zentroko instruktorearen betebeharrak izango dira:

- Ikaslea onartzea eta, Fakultateko tutorearekin koordinatuta, ikasleak gauzatu beharreko jarduerak antolatzea; baita ikaslea praktikak egiten ari den bitartean egon daitezkeen gorabeherak komunikatzea, konpontzea eta ikaslea bertaratzen dela kontrolatzea ere.
- Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea, praktikak bideratzea eta kontrolatzea, eta ikasleak gorabehera profesionalak dituenean, horiek konpontzen laguntzea.
- Ikasleari zentroko antolakuntzaren eta funtzionamenduaren berri ematea; era berean, intereseko araudia ezagutaraztea, batez ere segurtasunaren eta laneko arriskuen arlokoa.
- Ikasleei prestakuntza osagarria eta baliabide materialak ematea, praktikak egin ahal izateko.
- Ikasleei erraztasunak eta bultzada ematea, berritzaileak eta ekintzaileak izan daitezen eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.
- Bere lanbide-jardunaren edukiak azaltzea ikasleei.
- Instruktole-lanaren bidez ikasleari buruzko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gordetzea.
- Ikaslearen Practicuma ebaluatzea.

### **6.3.- FAKULTATEKO TUTOREAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

*Fakultateko tutoreak* honako eskubide hauek izango ditu:

- Bere jarduera akademikoa aintzat hartzeko eskubidea, indarreko legediaren arabera.
- Praktikak erregulatzen dituen araudiari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Erakunde kolaboratzailean sarrera izateko eskubidea, bere eginkizunak bete ahal izateko.

Era berean, Fakultateko tutorearen betebeharrak izango dira:

- Prestakuntza Proiektua gorabeherarik gabe gauzatu dadin zaintzea, eta praktiketako ordutegia eta ikaslearen betebehar akademikoak, prestakuntza-betebeharrak eta ordezkaritza- eta partaidetza-betebeharrak bateragarriak izan daitezen bermatzea.
- Praktiken jarraipena egitea, erakunde kolaboratzaileko tutorearekin koordinatuta (gutxienez hiru aldiz ikasturtean zehar).
- Ikasleak praktiketako zentroan egiten dituen jarduerak edo zereginak gainbegiratzea eta bideratzea. Ikaslearen jarduera edo zereginen jarraipena egitea (gutxienez bost saio ikasturtean zehar).
- Ikasleek gogoeta egin dezaten bultzatzea eta errealitate profesional desberdinetako esperientzien eta ezagueren trukea sustatzea.
- Egunerokoa eta Azken Txostena egiteko informazioa, lan-tresnak eta gidalerroak ematea.
- Praktikak ebaluatzea, praktiketako zentroko instruktoreak egindako ebaluazioa eta ikasleak egindako balorazioa kontuan hartuta.

### **6.4.- IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

*Ikasleak* honako eskubide hauek izango ditu Practicuma egiten dituen bitartean:

- Bi tutore izateko eskubidea: batetik, unibertsitateko irakasle bat, eta bestetik, praktikak egingo dituen enpresako edo erakundeko profesional bat.
- Ebaluatzeko eskubidea, Fakultateak ezarritako irizpideen arabera.
- Praktiketako zentroak egindako ziurtagiria jasotzeko eskubidea, praktiketan egin dituen jarduerak eta praktiken iraupena berariaz adierazita.
- Dagozkion jarduera-akademikoak, prestakuntza-jarduerak eta ordezkaritza- eta partaidetza-jarduerak egiteko eskubidea, praktiketako zentroari beharrezkoa den aurrerapenez jakinarazi ondoren.



Era berean, Practicumeko ikaslearen betebeharrak izango dira:

- Fakultateko Practicumaren araudia betetzea (prozedurak, datak eta egutegiak errespetatzea).
- Praktiketako zentrora esandako egunean joatea, tutoreekin ezarritako planean aurreikusitako ordutegia betetzea eta praktiketako zentroko funtzionamendua, segurtasun-neurriak eta laneko arriskuen prebentziorako neurriak errespetatzea.
- Praktikak egiten dituen bitartean unibertsitateko tutorearekin harremanetan egotea eta edozein gorabeheraren berri ematea; era berean, eskatzen dizkioten dokumentuak eta txostenak aurkeztea, adierazitako epean eta eran.
- Zentroan dagozkion jarduerak egitea, praktiketako zentroko instruktorearen eta fakultateko tutorearen zuzendaritza, laguntza, gainbegiraketa eta aholkuei jarraituz.
- Fakultateko tutorearekin egingo diren lan-saioetara eta mintegietara joatea eta horietan parte hartzea. Saio horietara joatea derrigorrezkoa da eta, beraz, ikasleak bertaratu ezin badu, aldez aurretik jakinarazi beharko du.
- Practicumeko Azken Memoria egitea eta aurkeztea, ezarritako epean.
- Erakunde kolaboratzaileari buruzko informazioa isilpean gordetzea eta egin dituen jardueren gaineko lanbide-sekretua gordetzea, bai praktikak egiten ari den bitartean, bai praktikak amaitu ondoren.
- Praktiketako zentroko politika, lan-kultura eta antolakuntza errespetatzea, beti.



## **7.- GIZARTE ANTROPOLOGIAKO PRACTICUMAREN GARAPEN METODOLOGIKOA**

### **7. 1.- AURKEZPENA**

Gizarte Antropologiako Practicumak 18 kreditu ditu, eta elkarren osagarri diren bi bloketan banatuta dago.

#### **1.- I.Blokea: fakultatean**

ECTS kreditu 1= 25 ordu: 20 ordu aurrez aurrekoak eta 5 ordu bestelakoak

#### **2.- II.Blokea: praktiketako zentroetan**

17 ECTS kreditu= 425 ordu: 340 ordu aurrez aurrekoak eta 85 ordu bestelakoak



## **7.2.- I. BLOKEA: PRESTAKUNTZA EDUKIEI ETA JARDUN PROFESIONALAREKIN DUTEN LOTURARI BURUZKO GOGOETA**

### **7.2.1.- HELBURUA:**

Bloke honen helburua da aurretiko prestakuntzaren eduki adierazgarrienak erlazionatzea jarduera praktikoen azterketari begira, Gizarte Antropologiako eremu profesionaletan sakonduta; zeintzuk diren profesionalak eta zer profil duten, eta zergatik, zertarako eta nola gauzatzen duten heziketa-lana.

### **7.2.2.- PROZEDURA METODOLOGIKOA:**

Prozesu metodologikoa jarraian aurkezten diren bost lan gune hauen inguruan egituratuko da:

#### **1.- Practicuma aurkeztea eta kokatzea**

Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea, egitura, egin beharreko jarduerak eta ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera azpimarratuta.

Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudiari eta ikasleek bete beharreko eranskinei buruzko aurkezpena.

#### **2.- Garatutako gaitasun akademikoei buruzko gogoeta**

Ikasleek berriro ekingo diote aldez aurreko eduki teoriko-praktikoen gainean egindako lanari, eta irakurketa lasaia egingo dute distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan eskuratutako ikaskuntzetatik abiatuta.

#### **3.- Trebetasun profesionalak, harremanetarako trebetasuna eta lanbide-deontologia**

Ikasleek lantegi batean parte hartuko dute, eta, bertan, harremanetarako trebetasun profesionalak landuko dira, jarduera praktikoa begira. Horretarako, funtsezkoa da Gizarte Antropologiako jarrera etikoak eta deontologikoak nork bere egitea.

#### **4.- Practicumera egokitutako metodologia-tresnen berreraikitzea**

Ikasleek hainbat lantegitan parte hartuko dute, eta, horietan, praktiketako zentroari behatzeko teknikak eta haren kokatze instituzional eta administratiborako teknikak landuko dira, besteak beste. Era berean, egunerokoaren teknika ere landuko da, datuak biltzeko tresna den aldetik, ariketa praktikoen bidez.

#### **5.- Hainbat eremu profesionalen aurkezpena**

Gizarte Antropologiaren hainbat jarduera-eremu aurkeztuko dira, ikasleek euren profil profesionalaren ikuspegi orokorragoa izan dezaten.

### **7.3.- II. BLOKEA: ZENTRO, ZERBITZU ETA ERAKUNDEETAKO EGONALDIA**

#### **7.3.1.- HELBURUA:**

Bloke honetan egingo den lanaren helburua da ikaslea rol profesionalera ohitzea, behaketaren, gogoetaren eta praktikaren bidez, beste profesional batzuekin elkarlanean. Beraz, ibilbide profesionalean nola jardun daitekeen jakingo dute, testuinguru jakin batean, eta unibertsitatean eskuratutako prestakuntza teoriko eta praktikoaren edukiak kontrastatuko dituzte.

#### **7.3.2.- PROZEDURA METODOLOGIKOA:**

Practicumak bi prozesu jarriko ditu martxan aldi berean:

##### **1.- Gizarte Antropologiako praktikak zentroetan, zerbitzuetan eta erakundeetan**

Practicumeko zati honen helburua da ikasleak lehenengo harremana egitea praktiketako zentroarekin, lan-esperientzia eskuratzeko. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleak praktiketako zentroetara joatea eta parte-hartzea.

##### **2.- Jarraipen-mintegiak eta lanketa teoriko-praktikoa Fakultatean**

Mintegiak practicum honetan parte hartzen duten ikasle guztien antolakuntza- eta ikaskuntza-esparrua dira, eta, esparru horren baitan, ikasle bakoitzaren Prestakuntza Proiektuaren jarraipenari ekingo zaio. Mintegietan ikaskuntza sortzen eta sozializatzen da eta ezaguerak eskualdatzen dira, ikasleen gogoetaren eta aurkezpenen bidez, ikasle bakoitzak egindako lanetik abiatuta; beraz, laguntza-, ekoizpen- eta komunikazio-guneak dira. Gainera, informazio-iturri garrantzitsuak dira, Gizarte Antropologiako lanari buruzko erreferentziak ematen dituztelako.

Metodologia aktiboak erabiltzen dira, parte-hartzea eta praktikek lanbidearen zentzu deontologikoan duten esanahiarekiko konpromiso profesionala eta soziala sustatuko dituzten ikaskuntzak bultzatzearen.

Honako hauek dira intereseko gaietako batzuk: jardun profesionalaren egitura instituzionala eta araudi-egitura, harrera eta haren zentzua antropologia-harremanaren ezarpenari begira, ekintza profesionalean barneratuta dauden jarrerazko eta bizipenezko prozesuak, esku-hartzearen zentzua eta esanahia, esku hartzeko prozesuen eraikuntza eta abian jartzea, ekintza praktikoaren azterketa, harreman profesionalak eta lan koordinatua antropologian, gizarte- eta lan-esparruko baldintzak, prestakuntza-beharren proiektzioa.



## 8.- AZKEN MEMORIA

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko Azken Memoria egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute.

Honako estilo hau erabiliko da: tipografia: Times New Roman edo Arial 12; lerrotartea: 1,5; luzera: 15 orr. gehienez.

Txosten horretan hainbat alderdi landuko dira, hala nola:

1. Ikaslearen datu pertsonalak (portadan)
2. Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazio eta analista (3 orr.)
  - Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimen eta zentroaren jarduera arloa erregulatzen duen araudia.
  - Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.
  - Zentroaren antolakuntza testuingurua. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.
  - Zentroaren beharren identifikatzea eta testuinguru jakin batean txertatzea profil profesionalari dagozkion gaitasunak erantsiz.
3. Praktika prozesua eta norbanako proiektua (8 orr.)
  - Praktika programaren diseinua: helburuak, metodologia, jarduerak eta erantzukizun maila.
  - Jarduera arloak, estrategiak eta baliabideak.
  - Dedikazioa eta bere gain hartu dituen eginkizunak
4. Eginiko lanaren azterketa eta hausnarketa pertsonala (3 orr.)
  - Prestakuntza-ibilbidearen azterketa eta Prestakuntza Proiektuari buruzko balioespena: ikaskuntzaren emaitzak.
  - Gizarte Antropologiako profil profesionala: heziketa akademiko-zientifikoari buruzko gogoeta orokorra, rol profesionalari ematen zaizkion funtzioak, trebetasunak eta jarrera pertsonalak. Autopertzepzio profesionala. Lanbide barruko eta lanbide arteko harremanen esparrua.
  - Practicumeko prestakuntza ibilbidearen analisia eta ikaskuntzarako ekarpenak mintegietan egindako lanaren bidez.
- Faktore positiboak eta hobe daitekeen elementuak.
5. Practicumaren ebaluaketa orokorra ikaslearen bizipen pertsonalatik (1 orr.)
  - Practicumeko prozesuan zehar gogoeta bultzatzeko eta azken txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak bere esperientziari buruzko oharra idatziko ditu eguneroko batean.

## 9.- PRACTICUMAREN EBALUAZIOA

Bi atal handi hartuko dira kontuan Practicumaren ebaluazioa egiteko: Fakultatean eginiko lana jasoko da lehenbizikoan, eta praktiketako zentroan egindakoa bigarrean. Bi atal horiek gainditu beharko dira Practicuma gainditzeko.

### a. FAKULTATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA

Fakultateko tutoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan Practicuma ebaluatzeko edo baloratzeko garaian:

- Fakultatean antolaturiko jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joan den eta zer-nolako parte hartzea izan duen, jarduera guztiak betez. **Puntu bat.**
- Practicumaren Azken Memoria, **3 puntu:** ebaluazio irizpideak
  - o Memoriaren irizpideetara eta egiturara egokitzea: argitasuna eta koherentzia datuak aurkeztean. Unibertsitateko eskakizun maila beteko du dokumentuaren erredakzioak.
  - o Zehaztapena, zorrotasuna eta argitasuna dokumentuaren azalpenean eta argudioak ematean. Lanbideko berezko hiztegia behar bezala erabiltzea.
  - o Eginiko praktiken inguruko azterketan eta gogoetan sakontzea.
  - o Garatutako lan arloan Gizarte Antropologiako profesionalaren eginkizunetik egokitzea eta konpromisoa. Profil profesionalaren azterketa eta hausnarketa karreran zehar landutako ikasketa-zientzia prestakuntzaren esparruan.
- Gogoeta egunkaria. **Puntu bat.**
- 

### b. PRAKTIKETAKO ZENTROKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA

Practicuma amaitu ondoren, ikaslearen ebaluazio-orria bete beharko du praktiketako zentroko instruktoreak. Orri hori aldeztatik jasoko du, eta bete ondoren, Fakultateko tutoreari bidali beharko dio.

Praktiketako zentroko instruktoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan ebaluazioa egiteko garaian:

- Aldeztatik hitzartutako egutegiak eta ordutegiak bete dituen.
- Bere zereginak bete dituen, halakotzat hartuko dira dedikazioa, erakutsitako gaitasuna, interesa eta jarrera arduratsu eta burutsua.
- Talde profesionalen esparruan izandako elkarlana, ekimenerako gaitasuna.
- Ebaluazio orria betetzea.

Honako hauek jasoko dira atal honetan:

- i. Praktiketako zentroan prestatzen ari den Gizarte Antropologo gisa izandako esperientziaren inguruko gogoeta.
- ii. Fakultateko lan saioetan izandako parte hartzearen balorazioa.
- iii. Memoria prestatzeko prozesuaren inguruko azterketa eta gogoeta, faseetako bakoitzean.
- iv. Practicumen aldi honetako ikaskuntza esanguratsuenen sintesia.
- v. Eranskinak: Egunkaria/Egunkariaren azterketa; dokumentu erreferentziak, beste  
...



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## 10.- KONTAKTU INTERESGARRIAK

### Practicumeko dekanordea:

Margaret Bullen                      maggie.bullen@ehu.eus                      943 015496

### Ikastegiko teknikaria:

Mertxe Torres                      practicum.fice@ehu.es                      943 015562

## 11.- PRACTICUMARI BURUZKO LEGEDIA

Practicumari dagokionez, indarrean dagoen legedia honako hau da:

- *1707/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa, unibertsitateko ikasleek kanpoan egiten dituzten praktika akademikoak arautzen dituena.*  
<http://www.boe.es/boe/dias/2011/12/10/pdfs/BOE-A-2011-19362.pdf>.
- *Ikasleen Kanpoko Praktika akademikoen araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluak onartuta.*  
[http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas\\_grado](http://www.ikasleak.ehu.es/p202shgradct/es/contenidos/informacion/normativas_grado)